

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

Hautatuen behin betiko zerrenda argitaratzeko ebazpena, Gazteriaren Foru Erakundearen 2018ko enplegu eskaintza publikoan hautaketa prozesurako deian, Gazteriaren Foru Erakundea Arabako Foru Aldundiaren erakunde autonomoko lan kontratudun langileak kontratatzeko, uztailaren 10eko 374/2018 Erabakian, zeinaren bidez Gazteriaren Foru Erakundearen 2018rako enplegu eskaintza publikoa onesten den, aurreikusitakoaren arabera

Uztailaren 24ko Administrazio Kontseiluaren ebazpenaren bitartez onartu ziren Gazteriaren Foru Erakundearen 2018ko enplegu eskaintza publikoa arautzen duten oinarri orokorrak.

2019ko martxoaren 7an, Kirol Jardueretan Espezialista eta Uretako Kirol Jardueretan Espezialista lanposturako onartutako izangaien behin-behineko zerrenda argitaratzen da dagokien lantoki zehatza adieraziz, eta erreklamazioak aurkezteko hamar egun balioduneko epea ezarriz.

7.6.2 oinarri orokorrean ezarritakoaren arabera, onartutako izangaien behin-behineko zerrendaren aurka erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta aurkezten direnak ebatzi ondoren, Gazteriaren Foru Erakunde Administrazio Kontseiluaren Buruaren ebazpenaren bidez onartuko du hautatuen behin betiko zerrenda, bakoitzari dagokion lanpostuarekin, eta hogeitau egun naturaleko epea irekiko da deialdian eskatzen diren gaitasun baldintzak eta betekizunak egiaztatzeko agiriak aurkezteko.

Gazteriaren Foru Erakunde Autonomoaren Egitura eta Funtzionamendu Arautegia onartzen duen ekainaren 8ko Diputatuen Kontseiluaren 26/2010 Foru Dekretuaren 11.d) artikuluan xedatutakoaren bidez funtzio publikoaren gaitetan eskumena duen guztietan ezarritakoarekin bat etorritik.

XEDATU DUT

Lehenengoa. Hautatuen behin betiko zerrenda argitaratzea, Zerbitzu Orokorretako Teknikaria lanpostuan, dagokion lanpostuarekin, Gazteriaren Foru Erakundearen 2018ko enplegu eskaintza publikoan hautaketa prozesurako deian, Gazteriaren Foru Erakundea Arabako Foru Aldundiaren erakunde autonomoko lan kontratudun langileak kontratatzeko:

IZENA	LANPOSTUA	KODEA
Aguirre Lopez de Aberasturi, M ^a Yolanda	Zerbitzu Orokorretako Teknikaria	180164

Bigarrena. Hogeitau eguneko epea irekitzea, Foru Agindu hau ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik hasita, aukeratutako izangaiek 8. oinarri orokorrean zehazten diren agiriak aurkez ditzaten.

Gasteiz, 2019ko apirilaren 25a

Euskera, Kultura eta Kirol diputatua
IGONE MARTINEZ DE LUNA UNANUE